



**EKONOMIA- ETA FINANTZIA-INFORMAZIOA, 2023  
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA**



# Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Auditoretza Txostena

(2023.12.31n amaitutako ekitaldiari dagozkion  
Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren  
urteko kontuekin batera)



KPMG Auditores, S.L.  
Torre Iberdrola  
Plaza Euskadi, 5  
Planta 17  
48009 Bilbao

## **Auditore independente batek egindako urteko auditoretza-txostena**

Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioaren Patronatuko kideentzat (Zuzendaritzak aginduta)

### **Iritzia**

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren (Fundazioa) urteko kontuak auditatu ditugu, 2023ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitzen den ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua eta memoria biltzen dituztenak.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek Fundazioaren 2023ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen eta diru-fluxuen irudi zehatza adierazten dute alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den finantza-informazioko esparru arauemailearekin (memoriaren 2. oharrean identifikatzen dena) eta, bereziki, bertan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorri.

### **Iritziaren oinarria**

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzari buruzko jarduera erregulatzen duen araudiari jarraitu diogu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko dira gure txostenaren *Urteko kontuen auditoretzarekin lotutako auditorearen erantzukizunak* atalean.

Etikako errekerimenduekin bat etorri, Fundazioarekin loturarik ez dugun erakundea gara. Errekerimendu horien artean daude independentziako errekerimenduak, Espainian urteko kontuen gure auditoretzari aplikatzekoak direnak, auditoretzako jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Zentzu horretan, kontu-auditoretzako ez den bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini. Halaber, araudi erregulatuak horretan ezarritakoaren arabera, ez da eman gutxieneko independentzia arriskuan jarri duen egoera edo baldintzarik.

Gure ustez, lortu dugun auditoretzako ziurtasuna nahikoa eta egokia da auditoretzari buruzko gure iritzia emateko.

### **Auditoretzaren alderdi azpimarragarriak**

Gure iritzi profesionalaren arabera, epe honetako urteko kontuetako gure auditoretzan huts materiala egiteko arrisku gisa hartu direnak dira kontu-auditoretzako alderdi azpimarragarriak. Arrisku horiek aztertzeko, urteko kontuen gure auditoretzako testuingurua hartu dugu kontuan, baita kontu horien inguruko gure iritzia emateko ere. Ez dugu arrisku horiei buruzko iritzia bereizita eman.



#### Jarduera propioaren diru-sarreraren aitortpena (ikus 4(k) eta 22(a) oharrak)

Diru-sarreraren aitortpenaren adierazgarritasuna dela eta, oker materiala egon daitekeen eremua da. Fundazioak bazkideen eta afiliatuen kuotei dagozkien diru-sarrerak aitortzen ditu, baita erabiltzaileen ekarpenei dagozkienak ere, dagokien aldian; halaber, aitortzen ditu sustapenetatik, babesleetatik eta lankidetzetatik datozen diru-sarrerak, kanpainak eta ekintzak gertatzen direnean, horiek kobratzeko unea edozein dela ere. Horrek arreta berezia jartzea eskatzen du ekitaldia ixtean.

Gure auditoretza-prozedurek barne hartu dute, besteak beste, Fundazioak jarraitutako prozesuaren ulermena, bazkideen eta afiliatuen kuotengatiko diru-sarreraren aitortpenari dagokionez, eta erabiltzaileen ekarpenei eta erregistroko transakzioen lagin baterako xehetasun-probak epe egokian egiteari dagokionez, baita bazkideen, erabiltzaileen eta babesleen kuotengatiko diru-sarreraren zenbateko egokiari dagokionez ere. Gainera, urteko kontuetan erakutsitako informazioak Fundazioari aplikatzekoa zaion finantza-informazioko esparru arauemailearen baldintzak betetzen dituen ebaluatu dugu.

#### **Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuei dagokienez** \_\_\_\_\_

Administratzaileak arduratzen dira erantsitako urteko kontuak egiteaz, Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zuzena erakusteko, Espainian erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin bat etorritz. Halaber, iruzurraren edo akats baten ondorioz, oker materialik izan ez dezaten urteko kontuak prestatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien barne-kontrolaz ere arduratzen da.

Urteko kontuen prestakuntzan, funtzionatzen ari den enpresa gisa jarraitzeko Fundazioak duen ahalmena baloratzeko ardura dute administratzaileek. Kasu horretan, funtzionatzen ari den enpresarekin lotutako gaiak jakinaraziko ditu eta funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliko du, baldin eta administratzaileek Fundazioa likidatzeko edo bere operazioekin amaitzeko asmoa ez badute edo beste hautabide errealista bat ez badago.

#### **Urteko kontuen auditoretzarekin lotutako auditorearen erantzukizunak** \_\_\_\_\_

Ondorengo helburu hauek ditugu: iruzur edo akats baten ondorioz, urteko kontuek, oro har, oker materialik ez dutela zentzuz ziurtatzea, eta gure iritzia bilduko duen auditoretza-txostena egitea. Zentzuzko ziurtasunak segurtasun-maila altua adierazten duen arren, ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen auditoretzako jarduera bat erregulatzen duen araudi baten arabera egindako auditoretza batek, beti, oker material bat hautemango duela, halakorik dagoen kasu guztietan. Okerrak iruzurraren edo akats baten ondorio izan daitezke, eta materialtzat joko dira, bakarka edo erantsita, urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela zentzuz aurreikus badaiteke.

Espanian indarrean dagoen auditoretzako jarduera erregulatzeko araudiarekin bat datorren auditoretza baten parte bezala, gure judizio profesionala aplikatzen dugu eta auditoretza osoan zehar eszeptizismo profesionala mantenduko dugu. Horretaz gain:

- Iruzurraren edo akatsaren ondorioz, urteko kontuetan oker materialen arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzia emateko oinarri bat eskainiko digun auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondorioz oker materiala ez hautemateko arriskua akats baten ondorioz oker materiala ez hautemateko arriskua baino handiagoa da, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahita egindako hutsegiteak, nahita oker egindako adierazpenak edo barne kontrola saihestea ere ekar ditzakeelako.
- Auditoretzarako barne-kontrol garrantzitsuen ezagutza biltzen dugu, baldintzen arabera egokiak izango diren auditoretzako prozedurak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne-kontrolako eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren ebaluatzen dugu. Halaber, kontabilitate-zenbatespenek eta administratzaileek emandako informazioa arrazoizkoa den ere ebaluatzen dugu.
- Administratzaileek funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den ondorioztatzen dugu. Era berean, eskuratutako auditoretzako ebidentzian oinarrituta, Fundazioak funtzionatzen ari den enpresa izaten jarraitzeko duen gaitasunari buruzko zalantza azpimarragarriak sor ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako zalantza materialik ote dagoen ere ondorioztatzen dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan jakinarazitako informazioa azpimarratu behar dugu. Bestela, jakinarazpen horiek egokiak ez badira, iritzia aldatu bat eman behar dugu. Gure auditoretza-txostena egin zen datara arte lortutako auditoretzako ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Hala ere, etorkizunean eman daitezkeen baldintzak edo gertakariak Fundazioa funtzionatzen ari den enpresa bat izateari uzteko arrazoia izan daitezke.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu —emandako informazioa barne—; halaber, irudi leiala adieraztea lortu ahal izateko, urteko kontuek transakzioak eta azpian dauden gertakariak ordezkaten ote dituzten ebaluatzen dugu.

Besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismenarekin eta hura egiteko unearekin, eta auditoretzaren aurkikuntza azpimarragarriekin lotuta, erakundeak administratzaileekin komunikatzen gara, baita auditoretza egiten dugun bitartean aurkitzen dugun barne-kontrolaren edozein hutsegite azpimarragarri jakinarazteko ere.

Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioaren administratzaileei jakinarazi zaizkien arriskuen artean, gaur egungo aldiaren urteko kontuen auditoretzan garrantzi handiagoa izan dutenak eta, ondorioz, arriskutsuenak izan direnak zehaztu ditugu.



Arrisku horiek gure auditoretza-txostenean deskribatu ditugu, lege-xedapenek edo arauzko xedapenek gai jakin bat publikoki jakinaraztea debekatu ez duten kasu guztietan.

KPMG AUDITORES SL

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) S0702 zenbakiarekin inskribatua

Estela Cuesta Carcedo

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) 24.163 zenbakiarekin inskribatua

2024ko apirilaren 26a

# GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

## BALANTZEAK

2023ko eta 2022ko abenduaren 31

(Eurotan adierazia)

<u>Aktiboa</u>	<u>2023</u>	<u>2022</u>
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>765.722</b>	<b>910.270</b>
Lursailak eta eraikuntzak	104.996	307.253
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	563.697	603.017
Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	97.029	-
<b>Guztira aktibo ez-korronteak</b>	<b><u>765.722</u></b>	<b><u>910.270</u></b>
<b>Izakinak</b>	<b>732.356</b>	<b>621.892</b>
Jarduerari zuzendutako ondasunak	728.206	617.917
Hornitzaileentzako aurrerakinak	4.150	3.975
<b>Erabiltzaileak eta berezko jardueraren bestelako zordunak</b>	<b>156.235</b>	<b>164.902</b>
<b>Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>896.474</b>	<b>1.046.905</b>
Salmenta eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak	184.682	207.192
Bezeroak, taldeko erakundeak eta elkartuak	12.272	98.287
Langileak	16.692	15.250
Administrazio publikoekiko bestelako kredituak	682.828	726.176
<b>Epe laburrerako finantza-inbertsioak</b>	<b>5.912</b>	<b>8.565</b>
Zorraren balore adierazgarriak	1.346	-
Bestelako aktibo finantzarioak	4.566	8.565
<b>Epe laburrerako periodifikazioak</b>	<b>70.490</b>	<b>68.006</b>
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>7.270.778</b>	<b>6.853.026</b>
Diruzaintza	<u>7.270.778</u>	<u>6.853.026</u>
<b>Aktibo korronteak guztira</b>	<b><u>9.132.245</u></b>	<b><u>8.763.296</u></b>
<b>Aktiboa guztira</b>	<b><u>9.897.967</u></b>	<b><u>9.673.566</u></b>

# GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

## BALANTZEAK

2023ko eta 2022ko abenduaren 31

(Eurotan adierazia)

<u>Pasiboa</u>	<u>2023</u>	<u>2022</u>
<b>Funts propioak</b>	<b>3.313.957</b>	<b>2.647.706</b>
Fundazio-zuzkidura		
Fundazio-zuzkidura	570.962	570.962
Erreserbak		
Bestelako erreserbak	2.076.744	1.998.304
Ekitaldiko soberakina	666.251	78.440
<b>Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b><u>1.290.223</u></b>	<b><u>1.234.612</u></b>
<b>Ondare garbia guztira</b>	<b><u>4.604.180</u></b>	<b><u>3.882.318</u></b>
<b>Epe luzerako zorrak</b>	<b>34.131</b>	<b>169.158</b>
Kreditu-erakundeekiko zorrak	-	110.000
Bestelako pasibo finantzarioak	<u>34.131</u>	<u>59.158</u>
<b>Pasibo ez-korronteak guztira</b>	<b><u>34.131</u></b>	<b><u>169.158</u></b>
<b>Epe laburrerako zorrak</b>	<b>193.858</b>	<b>316.513</b>
Kreditu-erakundeekiko zorrak	111.592	221.432
Bestelako pasibo finantzarioak	82.266	95.081
<b>Taldeko erakundeekiko eta erakunde elkartuekiko epe laburrerako zorrak</b>	<b>5.191</b>	<b>-</b>
<b>Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>5.060.338</b>	<b>5.305.577</b>
Hornitzaileak	277.494	204.648
Hartzekodunak hainbat adminis	4.118.713	4.533.302
Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	253.833	206.621
Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	409.170	357.136
Bezeroen aurrerakinak	1.128	3.870
<b>Epe laburrerako periodifikazioak</b>	<b><u>269</u></b>	<b><u>-</u></b>
<b>Pasibo korronteak guztira</b>	<b><u>5.259.656</u></b>	<b><u>5.622.090</u></b>
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b><u>9.897.967</u></b>	<b><u>9.673.566</u></b>



# GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

## 2023KO ETA 2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIRAKO EMAITZEN KONTUA

(Eurotan adierazia)

	<u>2023</u>	<u>2022</u>
<b>Jarduera propioaren diru-sarrerak</b>	<b>16.497.854</b>	<b>19.587.031</b>
Elkartuen eta afiliatuen kuotak	912.736	845.614
Promozioen, babesleen eta laguntzaileen diru-sarrerak	5.486.671	6.197.752
Ekitaldiaren soberakinari egotzen zaizkion dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	10.098.447	12.543.665
<b>Salmentak eta merkataritza-jardueraren bestelako sarrera arruntak</b>	<b>15.066.806</b>	<b>12.526.749</b>
Salmentak	14.794.980	12.307.119
Zerbitzugintza	271.826	219.630
<b>Hornikuntzak</b>	<b>(3.198.581)</b>	<b>(2.803.678)</b>
Salgaien kontsumoa	(2.181.836)	(1.731.281)
Lehengaien eta bestelako ondasun kontsumigarrien kontsumoa	(1.060.300)	(1.059.301)
Salgaien, lehengaien eta bestelako hornikuntzen narriadura	43.555	(13.096)
<b>Jardueraren bestelako diru-sarrerak</b>	<b>5.003.689</b>	<b>4.510.352</b>
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	4.969.960	4.147.149
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, merkataritza-jarduerari lotuak	33.729	363.203
<b>Langile-gastuak</b>	<b>(6.919.826)</b>	<b>(6.365.198)</b>
Soldatak, alokairuak eta antzekoak	(5.359.526)	(4.947.559)
Gizarte-kargak	(1.560.300)	(1.417.639)
<b>Jardueraren bestelako gastuak</b>	<b>(25.229.700)</b>	<b>(26.716.474)</b>
Kanpoko zerbitzuak	(25.206.180)	(26.686.900)
Zergak	(21.189)	(21.189)
Merkataritza-eragiketen ondoriozko hornikuntzen galerak, narriadura eta aldakuntza	(2.044)	(7.918)
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(287)	(467)
<b>Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>(456.631)</b>	<b>(517.985)</b>
<b>Bestelako emaitzak</b>	<b><u>32.480</u></b>	<b><u>280</u></b>
<b>Jardueraren soberakina</b>	<b><u>796.091</u></b>	<b><u>221.077</u></b>
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>63.022</b>	<b>1.620</b>
Balio negoziagarrienak eta beste finantza-tresna batzuenak		
Hirugarrenetan	(63.022)	1.620
<b>Gastu finantzarioak</b>	<b>(184.139)</b>	<b>(154.562)</b>
Hirugarrenetikiko zorren ondoriozkoak	(184.139)	(154.562)
<b>Kanbio-diferentziak</b>	<b><u>(8.723)</u></b>	<b><u>10.305</u></b>
<b>Finantza-eragiketen soberakina</b>	<b>(129.840)</b>	<b>(142.637)</b>
<b>Zerga aurreko soberakina</b>	<b><u>666.251</u></b>	<b><u>78.440</u></b>
Mozkinen gaineko zerga	-	-
<b>Ekitaldiaren soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldakuntza (I)</b>	<b><u>666.251</u></b>	<b><u>78.440</u></b>
<b>Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak</b>		
Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.158.283	699.392
<b>Ondare garbiaren aldakuntza ondare garbian zuzenean aitortutako diru-sarreraren eta gastuen ondorioz</b>	<b><u>1.158.283</u></b>	<b><u>699.392</u></b>
<b>Ekitaldiaren soberakineko birsailkapenak</b>		
Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(1.102.672)	(899.970)
<b>Ondare garbiaren aldakuntza ekitaldiaren soberakineko birsailkapenen ondorioz</b>	<b><u>(1.102.672)</u></b>	<b><u>(899.970)</u></b>
<b>Ondare garbiaren aldakuntzak ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarreraren eta gastuen ondorioz (II)</b>	<b><u>55.611</u></b>	<b><u>(200.578)</u></b>
<b>Gutzizko emaitza, ondare garbiaren aldakuntza ekitaldian (I + II)</b>	<b><u>721.862</u></b>	<b><u>(122.138)</u></b>

# GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

## URTEKO KONTUEN MEMORIA 2023ko abenduaren 31

### Fundazioak erabilitako baliabide ekonomikoak guztira

Gastuak/Inbertsioak	Eurotan			
	2023		2022	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Ustiapeneko kontsumoak	2.182.640	3.273.261	1.966.396	2.820.445
Langile-gastuak	7.072.519	6.919.826	6.269.963	6.365.198
Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak	475.000	456.631	510.000	517.985
Bestelako gastuak	25.788.552	25.227.369	23.623.710	26.709.618
Jardueraren horniduren aldakuntza eta kreditu kobraezinen galerak	8.500	172.789	8.500	221.671
Gastu finantzarioak eta antzeko gastuak	163.964	198.134	142.341	175.205
Bestelako gastuak	<u>500</u>	<u>3.648</u>	<u>500</u>	<u>215</u>
Gastuen azpigutzizkoa	<u>35.691.675</u>	<u>36.251.667</u>	<u>32.521.410</u>	<u>36.810.337</u>
Ibilgetuaren eskuratzek (ondare historikoko ondasunak salbu)	-	312.083	-	78.486
Inbertsioan guztizko partziala	-	<u>312.083</u>	-	<u>78.486</u>
Erabilitako baliabideak guztira	<u>35.691.675</u>	<u>36.563.750</u>	<u>32.521.410</u>	<u>36.888.823</u>

### Fundazioak lortutako baliabide ekonomikoak guztira

Fundazioak lortutako sarrerak	Eurotan			
	2023		2022	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Jarduera propioaren diru-sarrerak	20.179.649	16.497.854	19.429.733	19.587.031
Merkataritza-jardueren sarrera arruntak	11.144.454	15.097.930	9.518.454	12.556.610
Sektore publikoko dirulaguntzak	-	33.729	-	363.203
Bestelako sarrerak	4.367.572	4.969.960	3.573.223	4.147.148
Bestelako sarrera motak	-	<u>318.445</u>	-	<u>234.785</u>
Lortutako sarrerak guztira	<u>35.691.675</u>	<u>36.917.918</u>	<u>32.521.410</u>	<u>36.888.777</u>

Fundazioak lortutako Bestelako baliabide ekonomikoak	Eurotan			
	2023		2022	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Egindako zorrak	-	-	-	-
Hartutako bestelako finantza-obligazioak	-	-	-	-
Lortutako baliabideak guztira	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>-</u>	<u>-</u>

# GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

## URTEKO KONTUEN MEMORIA 2023ko abenduaren 31

### Eskudiru-fluxuen egoera-orriak

	<u>2023</u>	<u>2022</u>
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak		
Zerga aurreko ekitaldiko soberakina	666.251	78.440
<b>Emaizaren doikuntzak</b>		
Emaizaren amortizazioa	456.631	517.985
Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak	(41.511)	21.014
Dirulaguntzak egoztea	(1.102.672)	(899.970)
Sarrera finantzarioak	(63.022)	(1.620)
Gastu finantzarioak	184.139	154.562
Kanbio-diferentzia	8.723	(10.305)
<b>Kapital zirkulatzailan izandako aldaketak</b>		
Izakinak	(66.909)	67.123
Zordunak eta kobratzeko kontuak	148.331	(208.559)
Bestelako aktibo korranteak	(2.484)	(11.040)
Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontuak	(245.236)	1.799.896
Bestelako pasibo korranteak	269	-
<b>Ustiapen-jardueren bestelako eskudiru-fluxuak</b>		
Interesen ordainketak	(183.979)	(155.429)
Interesen kobrantzak	61.676	1.620
<b>Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak</b>	<u>(179.793)</u>	<u>1.353.717</u>
Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak		
<b>Inbertsioen ondoriozko ordainketak</b>		
Ibilgetu materiala	(312.083)	(78.486)
<b>Desinbertsioen ondoriozko kobrantzak</b>		
Bestelako aktibo finantzarioak	3.999	-
<b>Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak</b>	<u>(308.084)</u>	<u>(78.486)</u>
Finantza-jardueren eskudiru-fluxuak		
<b>Ondare-tresnen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak</b>		
Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.158.283	699.392
<b>Pasibo finantzarioaren tresnen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak</b>		
Jaulkipena		
Lotuta dauden enpresekiko zorrak	5.191	-
Itzulketa eta amortizazioa:		
Kreditu-erakundeekiko zorrak	(220.000)	(220.000)
Lotuta dauden enpresekiko zorrak	-	(166.417)
Bestelako zorrak	(37.842)	4.526
<b>Finantza-jardueren eskudiru-fluxuak</b>	<u>905.631</u>	<u>317.501</u>
<b>Eskudiruaren edo baliokideen murrizketa/gehikuntza garbia</b>	<u>417.752</u>	<u>1.592.732</u>
Ekitaldi-hasierako eskudirua edo baliokideak	<u>6.853.026</u>	<u>5.260.294</u>
Ekitaldi-amaierako eskudirua edo baliokideak	<u>7.270.778</u>	<u>6.853.026</u>